Ikuŕin baŕia.

Emeko Batzokireko ekaŕi ei dabe sedazko ikuŕin edeŕen bat.

Mitiñe.

Il̄ onen amazortzien ei dauku abertzaleen mitiñe. Badoya emen be jentea bizkortuez, baya badago oindiño zer egin. Baite diñoe emakume asko sartu dala Batzokien eta laster ipinten doyazala Emakume-Abertzale-Batza.

Asten badire oneixek egingo dabe zeozer.

Jainko'ko jayak.

Andra Mariek diriala ta Jainkon lau eguneko eŕomeriek euki dituez konbideduekaz, eta eŕigoitiaŕak uts gitxi egin bear izan dabe. Emen santuei deboziño andie deutsegu. Okelea ta indi-babea sendo egon eide, ta yatunek be ez txaŕak, ze emeko tambolinteruek eta bizar-kentzal̄eak seine buŕuntzada indi-baba goŕi yan ei zituezan etxe baten. Daukien etxuriagaz datoŕen urtean kostako yatzue beste oŕenbeste yaten.

Il̄ak.

Andra Mari egunean il zan Juli, Mazpekoa. G. B. Lagunduten dautsegue atsekabean bere etxekoai.

S.

JANTZIAK
gizonentzako Teadoronian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.
TOVALINA Y C.A L. D.
SOMERA TT
BILBAO
Lenengo oñian sartukeria dendatik.

Abadiño.

Maria'ren alabak.

Ama Neskutza'ren Jayotza igaro dan astean ospatu ginduan. Aŕatsaldean Angoitia'tar Koldobika Urkiola'ko abade yaun argiak itzaldi oso edeŕa egin aŕen, bestetan baño Mariaren alaba gitxiago eleizaratu zan. Maria'ren alabatzat zagozienok Andra Maria'ren egunetan eleizaratuten ezpazarie, ¿Nortzuk yoango gara ba?

Mendiola'ko

Bide baŕia asi da. Bide au dala ta eztala baster guztiak agoraño beteta euki dodaz. Alde gustietan nongoa nintzan itandu ta Abadiñokoa ezan ezkero, bigaŕen itaune beti izaten da Mendiola'ko bide baŕietzaz. Ia gaŕantzi andie daukan EKIN'ean ainbeste bider ipinteko. Abadiñontzat Madril'go uriak baño be andiagoa; augaitik amairarte zerbait entzun bearko dozue. Gero be Mendiolan izpaŕa ugari izango da.

Lenengo yaunartzea.

Udaeta eta Bengoa'tar Joseba Kepa ta Bakarne'ren semetxuak, osaba Kandido'n eskuetatik Ama Neskutza'ren Jayotzako egunean Andra Mari'ko basatxadonan lenengoz, beste ume batzuk lagunduta gure Jauna artu eban. Au dala ta etxeko senide ta lagunak egun ori andikiro ospatu eben. Zorionak.

Gexorik.

Laŕingan'tar Andoni, Goenekoa eleizakoak artuta dago. Lenbait-len osatzea opa dautsogu.

Naskaldia.

Bengoa'tar Kandido yauna, udaldia igaro ondoren, eguastenean itxasoratu da. Ondo ibil̄i.

Mendiola'rako irakaslari baŕia len Morgan egonikoa dator. Zorionak.

Uribesalazar'tar Gotzon eta bere anaya, eguenean eguna igaro-ta, baŕiro Urkiola'ratu ziran. Aizeak ondo egin dagiuela.

Kamara'tar Alejandro ta Joakin aita-semeak, egun batzuk Poza alderdian igaro ta, etxeratu dira.

Solozabal'tar Il̄are andereñu irakaslari gustiz maitea etxeratu da. Ondo etoŕiak.

Abeslariak.

Andolin egunean Isasmendi'tar Gotzon zuzendari zala, oi dan lez Meza Nagusia gustiz ondo abestu ei eben. Meza-ondoren Beŕizbeitia'tar Ezekiel'en otelean maya be patxadazkoa egon ei zan gero. Inguru aretatik ibil̄i diranak diñuenez, urdal̄ak bete ta estaŕiak esotu ziranean abestiak berez urtetan eiyutziezan. Abestientzat osakairik onena estaŕia bustite eukitea ei-da. Egun alaya umore onagaz igarota etxeratu ziran.

URKIOLAOE

EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK
AUTONOMÍA-24'gn. — ABANDO'n
Igali edo *fruta* ta basoko zugatzak-Landa, ta ortu-azijak. Zimauŕak; kokuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatxak kentzeko irakaskixunak. Ortu ta baral-eredubak.

Ziaŕotza.

Igaro dan igandian (il̄aren 4'an) emendik sei emakume ta gizonezko bi, bakaŕik urten zuten oñez Durango'ra ta diñue zortzi ta erdijetako, an egozala. Ia ba emakumiak ikusten dot eŕi onetan eztagoala zuek baño abertzale zintzoagorik; ta azkaŕena izan zenduela diñozue zuekin juan zan gizon zar ori. Ia ba, zaŕa erakutzi abertzale zintzotasuna zure seme alabai; ta beste asko juan ziran berebil̄ian. Danok etxeratu ziran pozez beterik ikusirik ango jai zoragaŕia Jaunari eskeŕak emonaz egun eder origaitik.

Miñ artuta.

Juan dan astian besoa ausi eban Goŕiños'ko basetxeko gizon zar Agustin'ek. Ainbat lenen osatutia opa deutsogu.

Orma basetxeko alaba bakaŕari astuak besoan aginka eginda dago; ta oso gaizki aurkitzen da: Berari ta bere gurasoai laguntsen deutsegu atsekabean, ta ainbat lenen osatutia opa deutsogu.

Gari-jotiak.

Zigaŕeitaŕak igaro dan astian gariak joten asi ziran prisa aundiagaz, baña egualdi txaŕaz itxi egin bear izan deutselako oraindik gari asko ikusten da baseŕetan joteko. Aurten baseŕitaŕak atzeriak dabiltzaz.

DONE

Gernika.

Azokan.

Asteleneko azoka'tik, geure aldrak asaŕez etxeratu ziran:

Aŕautzak amabi-amairu eŕialetik, amasei'ra igon ei-ziran.

Eta eurak iñoena: «Gastiek-oniok! ¿Nora goaz olan? ¡¡Josu!!

«Tortil̄ia» Sanjose-lorakin-edo, ostera be egin bearko dogu.

Sagaŕak ugarituten asi dira. Baña oindiño karu-zamar dabilz.

Lengo egunetako euri ta berotasuntxuakin gibelurdiñak eta auŕatzapeŕetxikoak eta seta-goŕiak-eta ugaritu dira.

¡Tripalakin bat-edo-bat garbituten ez-pada.

Atitek-eta zapikadak dakaŕez.

Joan zan astian il ziran:

Ibaŕaran'tar Melkiades jauna, geure adiskide eta ostikolari bikain dan Eŕoman'en aita zana; eta Ibarguen'tar Bitoren'en ama zaŕa.

Baita Olaeta'tar Serapin'en emastia be il da.

Goyan begoz gustiok.

Emengo ASILO CALZADA (deritxon gexo-etxian BOST MIL̄A pesetа artu dira, Delmas eta Baŕandika'tar Kasilde zana'ren ondorengoak emonda.

Goyan bego emakume zintzoa, olako emokunak egiten dituzanak betiko atsedena merezi dau-ta.

Entzun dogunez, datoŕen il̄earen lenengo egunian asiko da, geure Batzoki ta aberkide enparauok ordainduko daben EUZKO IKASTOLIA.

Ikastola onetara euren umetxuak bidaldu gura dabeenean, emon bedie izena Batzokian, eta esan bedie il̄ean zenbategaz laguntzeko gertu dagozan be.

Gaur egin daikegun lanik aberkoi eta onurakoŕena auxe dogu.

AIKO

Oñetako ta puntozko gauzak
Ugari, onak eta merke
EUZKERAZ ITZ EGITEN DA
BENGOA'TAR MATIAS
Aŕtekale. 1 eta 7 BILBAO

Ereño.

«Txiribi»ri.

«Txiribi»ri, guzuŕak idazten asi az eŕi onetako neskatil̄akaitik. Ba eŕi onetako neskatil̄a auŕeskulariak i baño abertzale zintzuaguak dozak ta oŕegaitik egin eben Bedaronan be Euzkotaŕen dantzia.

Eta ¿ik esan biok uŕenguen ez egiteko an baño obeto ez egitekuen? eta ik badakik neskatil̄a oŕek zer esan eusten niri? Ba, nai doanien urteteko euk plazara auŕeskugiñen iri eiteko bilduŕik ezteukiela-ta, Jaungoikuak oin arte lez auŕerantza lagunduten badotsie.

Eŕazoie daukie, neuk be jokatuko neuke bosteko bat neskatil̄en alde.

Izpar baltza.

Norte-Amerikan 13 urte eginda igaro dan il̄en 20'an il da, Mentxaka'tar Jon. Goyan Bego. Laguntzen dautsegu atsekabetan bere gurasuei.

Eta zuk irakurle otoi bat bere arimiaren alde.

S. J.

«Ganbe»ri.

«Ganbe» EKIN'en idazlia minberatuta ikusi dot oraintsuengo igandian bere idazkirik EKIN'en eztala argitaldu ta. Ori dala-ta Mundaka'ko astuegana be joan ei da bere idazkiari zer jaso jakon jakiten. Onek, konsultiagaitik laurleko bi kendu ondoren esan dautso, bere emaztiak daukozala eŕu guztiak, beronek eztabelako gura Ekin'en idazterik. Baña ori ezta egija. «Ganbe»n emaztiak berak be Ekin'erako izpaŕak bil̄atzen alegin egiten dau eta aren abindurik ez eidabe euki idazki arazua daukienok. Au onan dana «Ganbe»n emaztiek berak baieztuten dau, eta neuk argi esango dot ori zelan ixan dan neuk daukot emen neuri izpaŕak zuzendúteko guzur konpontzal̄e bat eta beronek ekaŕi daustazan izpaŕetatik auxe atara dot. Emengo idazkiarazua daukienen artian dago «El Liberal» Bilbao'ko izpaŕingi egunorokuaren idazle bat idazkijak irakurten guztizko azartua jentiak esaten dabenez eta idazki bi juan zirian orduan, bata «Txiribiri»k idatzi eban «Euzko»'rako eta bestia «Ganbe»k Ekin'erako; eta guzur konpontzal̄iak diñuanez idazki bijok irakurten ibili ta gero idazki bata beste idazki azalian sartu ta «Euzkora»ra juan bier eban idazkija «Ekin»era bialdu eta «Ekin»erakua «Euzko»ra; edo ta bier bada bera izparkarija dan lez «Liberal»era edo berak daki nora. Oŕegaitik «Txiribiri»k asaŕien asaŕiaz esan dau baŕiro jausten bada ezetan, Biritxinaga lotsabakuak emengo kukul̄uari egin dautson baño baŕabaskeri aundijagua egingo dautsola, eta Deun Kepa eguneko Oma'ko bueltia eztala ixango berak emoten dautson alogera. Kontuz ibil̄i daitela ba orduan, emendik auŕera, aitu ondo, bestelan gero ez damu-ixan alpeŕik.

Biritxinaga'ri eta «Jel-orde»ri.

Biritxinaga eta «Jel-orde» Basondo'ko leizara eroan dituez espe edo preso Biritxinaga amar urterako kukil̄uari egin dautsoen baŕabaskerijagaitik eta «Jel-orde» iru asterako Ereño'ko neskatil̄a gaitik askotxu esan ebalako. Ondo egiña, eta uŕenguan bakotxa beren lekuan egon daitezela.

KUKU-PRAKA

Kandela-ola andija
Jaupagintzarako bedegaŕak.
Jaureskixunetarako ta etxietarakuak.
Iraunkoŕak, argitsuak, merkiak.
OBARIK AL BE... EZ
Olabaŕieta'tar Jon
DURANGO, (Bizkaya) Deun Ane-Zeya.

Foru.

Jayotza.

Urkiza'tar Basili'ren emazte dan Ondoro'tar Rufinak bere lenengoko alabatxua izan dau. Aita-ama bitxijak Badiola'tar Silber eta Ondaro'tar Miren ixan ziran. Ugutzatzean Miren Andone ixena imiñi dautse. Ama-alabak ondo aurkitzen dira. Zorijonak, Urkiza senar-emazte bijei.

Eliskixuna.

Miren Deun-eguneko jaupa nagosijan Ortuzar'tar Bruna jauparijak, txonitz eder bat egin euskun. Txonitz onetan zer ikasi asko ixan gendun ta euren bitartian esan eban zelan «EKIN»en irakuŕi eban oraingo ikastolak, estirala ikastolak astolak, baño, ta egi aundija dala. Oso atsegin ixan yakun Ortuzar'en txonitza ta bere euzko-zaletasuna.

Kortezubi're.

Igandian Kortezubi'n ospatu ziren jayetara emetik be, notintza aundija ixan gintzazan bertoko ikuŕin bijakin. Jai edeŕak ixan ziran: Goixian jaupa edeŕa 25 ikuŕiñ gurutze zuridun txadonan zirala. Jaupa Gernika ta Elantxobe'ko abeslarijak abestu eben. ¡A ze ederto abestu be! Txonitza Zal̄o-Etxebaŕia'k egin eban. Txalorik jo ezpayakon ezan gogorik ezegoalako, baña txadonan jotia oitura ezdala-ta ezgendun jo. Zorijonak, ta txadonan jo ezpayatzun be, asteroko onen bitartez geure txalorik sutsuenak eskintzen dautzuguz. Jaupa amaijeran, Iñaki'ren ereserkija abestu zan. Ondoren ikuŕiñen onespena txadonan bertan. ¿Zelan etziran ba txadonan onetsiko Zal̄o-Etxebaŕia'ren tzonitza entzun ondoren? ¿egon ete zan txonitzian eŕi ortako txaunburua? ta Gernika'koa? Onek eta beste onetariko batzuk be, Zal̄o-Etxebaŕia'ren txonitz batzuen biaŕixena badabe.

Ondoren Agiŕe'tar Joseba andiak egin eban itzaldi eder bat. Oso txalotua ixan zan. Muxika'ko Txindoŕak be, olerki eder bat abestu euskun. Amaika txalo entzun eban.

Aŕatzaldian baŕiro itzaldi edeŕak ixan ziran. Muxika'ko Txindor zaŕak egin euskuzan lau olerki eder bere asierea emoteko. Gero Mendizabal'tar Miren'ek egin euskun itzaldi eder bat. Ondoren «Ogoñope»k eta amaijan «Lauaxeta»k egin eban. Guztijak oso ederto egon ziran. «Lauaxeta»k zein bidetik jaŕaitu ondo ederto erakutsi euzkun. Guztijak ixan ziran oso txalotuak. Gero gaberarte euzko-dantzea. Bakerik aundijenian amatu ziran jayak.

IBAI-GANE

Mañari.

Miren alabak.

Igandian, Miren-alabak, urteko jairik andijenetariko bat ospatu geban. Zazpiretako mezan, guztijoen Jaunartzia euki gendun; eta aŕatsaldian be, neskato pil̄o bat neskutz ta gotzon irudijan jantsita zirala, ibildeuna ta abar egiñaz, elizkixun edeŕa egin zan. Eta aŕatsaldeko elizkixunian, txaunburu jaunak, batzako araudijatzaz, berbaldi eder bat egin euskun.

Egun oŕetan, aizta baŕijak be ixan genduzan; amaika neskato bazkidetu ziran eta. Neskutza'ren aintzarako ixango al-gara, danok.

Juan-etoŕijak.

Logroño'n aurkitzen dira alditxu bat igaroten, Arana'tar Gabin eta emaztia.

Kapanaga'tar Pantzeska ta Bitortxu, Santurtze'ko mutiko polil̄ak, aspalditxuan emen aurkitzen dira.

Bilbao'ra juan zan Aŕizabalaga'tar Ixidor «Gereta»ko moŕoskua.

E. A. B.

Orañarte, emengo emakume abertzaliok, Durango'ko Emakume-Abertzale-Batza'ko bazkidiak ixan gara, ta geure arazo gustijetan ara joten ixan dogu. Baña, lengo astian, notin batek esan euskun, batza begiko ori eŕi ontan imintia, askozaz onuratsubagoa ixango litzakela ta abar. Eta, aren asmuari ederto eretxita, danok abo batez, E. A. B. eŕijon bertan eraldutia erabagi geban.

Oŕetarako lagun pil̄o polil̄a batu gara; ta, gitxi edo asko, zer edo zer egingo dogulakotan gagoz.

Intxauŕa.

Igazko aña ezaŕen be, naiko ugari dago. Laster asiko dira batzen; ta gure lugiñori, lan onetan nok lagundu etxake «paltako». Eskola-umiak ba, onango gauzetarako beti gertu egoten dira ta.

Izurtza'ra.

Igandian, emengo gastiak Izurtza'ko jayetara juan ziran. Geuk aizkidiok be ara-osteratxu bat egin geban; gitxiago ez ixatiaŕen edo. Eta bertan, ezpatadantzarijak, ariñeketak eta abar, jai «desentiak» ikusita pozik ibil̄i gintzazan. Il̄untzian baŕiz, eŕoskil̄a pil̄o bat eŕiko atso-agurarentzat erosi ta etxerantza abijau gintzazan... Gero, eurekandik, bertzo ta ipuin zaŕak eta, eŕazago ikasteko asmuaz...

MAÑARIKO

JOSE LUIS ABAITUA'ren
GABEUKAZ ETA BITXI-TEGIA
Ormako, sakeleko ta eskubituŕeko gabeukatzik onenak zidaŕezko naiz uŕegoŕizkoak.
Deun gustien domiñak, norberak gura dauzan era-erakoak.
Apurtuak osotu ta baŕiztuten dira.
Postas 28 - Gazteiz - Vitoria.
Idazketxe-auŕean = Frente a Correos

Elantxobe.

Oinguan neskatil̄atxuak.

Mutil̄txuak baño gitxiago ez diriala ta, nekez baya gero be irakasle anderañuak zuritu ebezan, ta eurakiñ batera, ibil̄aldi edeŕian Arteaga'tik izan genduzan. Arukuan, Zendokitz'ko Andra Marijari, ikeŕalditxu bat egin ondoren, amabijetarako Arteaga'ko gazteluan eguazan.

Tzistu-tanboliñen jaube

ezirian aŕen, eŕiko txori abeslarijak doguzan lez zakel betetik atarata, bai onek, bidiak euzkel-abesti edeŕez poztu. Pozaŕen gu, baña danak pozaŕen balegoz, pozago gu. Ainbat amaren seme-alaba garian ezkero, guztien guraririk eziñ bete. Loŕa da gero, baña, gaxo zaŕa dogu ludijan, gaxo au. Zerura-orduko aituko alkara. An eritxi batekuak izango gara.